



## Euskal Herriko genealogia feministen erakusketa ibiltaria

Iraultza txiki bat egin nahi dugu **Gorputz\_Grafiak Memoria feministaren marruak** erakusketarekin; izan ere, memoria erresistentzia praktika bat da. Ez bakarrik errelato ofizialek kontuan hartu ez duten hori barnebiltzeko saiakeragatik, baizik eta gaur egun garena eta etorkizunean izango garen horrekin, jokoan sartzen garelako. subjektu, harreman eta iruditeri berriak sortu nahi ditugu; izendatzeko beldurra eraitsi nahi dugu; ahazturari galga jarri. Jakin badakigu ahanzturak memoriaz josita dauden bezalaxe daudela oroitzapenak, eta guk, gaur, hautu politiko bat hartu dugu: ez zaituztegu ahaztuko.

Gorputz\_grafiak erakusketak **Euskal Herriko Mugimendu Feministaren ibilbidea** irudikatzea du helburu. **Gure genealogia feministak**. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat liburua oinarri hartuta, hainbat eduki eta material grafiko eskainiko ditugu: antolaketa ereduak, jardunaldiak, eztabaidak, aldarrikapenak eta lan-molde nagusiak bildu ditugu, 60ko eta 70eko hamarkadetatik gaur egunera arte. Jakin-mina ase!

## **ERAKUSKETA**

### **eramango duguna**

---

- 12x2 metroko panela. Bertan MFren borroka ezberdinen bilakaera azaltzen da kontzeptu mapa bisual baten bitartez, baita bidean egondako hito eta talde esanguratsuenak ere
- Ibilbidearen kontzeptu mapa honen desplegableak koloretan
- Argazkien montajea
- Kartel ezberdinen repliken montajea
- Eskuorri eta pegatinen replikak
- Azalpen testuak hamarkadaz hamarkada
- MFko belaunaldi ezberdinetako emakume erreferenteen elkarrizketak
- Hemeroteca eta armairua
- Instalazio parte hartzailea
- Audo gida erakusketaren ibilbidea eta edukiak barneratzeko euskarri
- Erakusketa iragartzen duen 4x6??-ko oihala (aukeran, udal bakoitzak era-bakiko du jarri ahal eta nahi duen)

## **BEHARREZKO AZPIEGITURA ETA BALIABIDEAK**

### **Udal bakoitzaren esku**

---

- Pareta leunak behar dira bertan kartelak eta argazkiak blue tack-arekin itsasteko.
- Minimo 9 metroko pareta bat behintzat eduki behar du espazioak 8x2 metroko panelerako
- Bitrinak
- Telebista bat USB sarrera daukana eta kaskoak
- Telebista jartzeko mahai bat
- Pareta handiaren ondoan eskuorriak eta kontzeptu mapak uzteko peana edo mahaitxo bat
- Sarreran audio gidak jartzeko mahaitxoa eta jendeak hartzeko aurikularak
- Montajearen egunean bertako langile baten presentzia

## AURKEZPENA + BELAUNALDIEN ARTEKO SOLASALDIA

Erakusketa herri batean jartzearekin batera, bertako mugimendu feministaren historia berreskuratu eta eza-gutzera eman nahi dugu. Horretarako, bertan dauden edo egin diren emakume taldeekin edo feministekin harremanetan jarri eta herri horretako memoria ere erakusketan presente egoteko aukera luzatzen dugu. Honetaz gain, erakusketaren aurkez-

penarekin batera, bertako mugimendu feministako belaunaldien arteko elkarrizketa edo tertuliak antolatuko ditugu erakusketari hasiera emateko. Honela, emakume horiei aitortza soziala ematez gain, belaunaldi gazteenak ondare historiko ez material hori jasotzeko aukera izango dute aurrekoek hasitako bidetik lanean jarraitu ahal izateko.

### Kontutan hartzeko:

- Solasaldi honen antolaketarako bertako berdintasun teknikariarekin hitz egingo
- Partaideentzako aulkiak beharko dira eta hauek borobilean jartzeko aukera
- Bideoa edo abestiren bat jartzekotan, proiektorea edo soinu ekipoa beharko da
- Luntxa egotekotan, bertakoen esku geratuko da


## AURREKONTUA

### Guztira 1850 euro\*

Erakusketa minimo 3 astetarako kontratatuko da.

4 astetik gora kontratau nahi bada, aste gehigarri bakoitzeko 100 ordainduko dira.

*\* BEZik gabeko jarduera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1992ko abenduaren 29ko 102/92 E.D.ko 20.1.14 artikuluaaren arabera.*



emagin  
Formazioa eta  
ikerketa  
feminista